

“ELEANITZ-INGELESA” PROIEKTUAREN AURKEZPENA

1.- Zerk eraginda hasi ziren ikastoletan berrikuntza hau egiten?

Giza ekintzetan erabakiak hartzeko orduan tartean izaten diren arrazoiak argitzea eta horien eragina bereiztea ez da batere erraza. Giza ekintzetan, sentimenduak, beharrak, balioak, interesak, batetik, eta arrazoiketaren eskakizunak, bestetik, nahasten dira. Arrazoiak, bestalde, historikoak eta aldakorak izaten dira: ez dira berdinak orain eman ditzakegun arrazoiak eta proiektuaren hasieran ematen genituenak. Hasierako egoerara itzuliz, arrazoi hauek iruditzen zaizkigu nabarmentzeko modukoak:

- Europako Elkarteko esparru ekonomikoaren, politikoaren eta sozio-kulturalaren integrazioa eta horrek europar gizabanakoengan zuen eta izango zuen eragina nabarmena zen. Argi ikusten genuen Europan bizitzeko eta bertan integratzeko, euskaraz eta gaztelaniaz aparte, euskaldunok beste europar hizkuntzak menderatzea beharrezkoa zela.
- Elebitasunaren planteamendu ofiziala aurreko egoerarekiko aurrepauso nabarmena bazen ere, argi ikusten genituen planteamendu horrek epe erdira zituen mugak, ezinezkoa baita gaztelaniak edo frantsesak bezalako estatus internazionala duten hizkuntzak eta egoera minorizatuan dagoen euskara, bata bestearen ondoan egoera orekatuan bizitzea. Euskarak, iraungo badu, bere hizkuntz eremuan hizkuntza nagusi izatera iritsi behar du, baina argi dago, era berean, euskaldunok euskaraz gainera beste hizkuntzak erabiltzeko gauza izan behar dugula, bestela euskara bera ere arriskuan bailegoke. Lortu nahi duguna, beraz, bi elementu hauek uztartzea da, hots, alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunok beste hizkuntzen ezagutza eta erabilera erdiestea. Hori lortzeko era bakarra eleaniztasunaren eskutik dator.
- Eleaniztun izateak, dituen abantaila instrumental, profesional eta, batez ere, sozialaz gainera, baditu, adituen ustez, gizabanakoaren garapenari begira beste abantaila batzuk: pentsaera kreatiboagoa eta adimenaren malgutasun handiagoa erdiesten da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun gehiago lortzen da, hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna lortzen da.
- Premia horiei erantzuteko, atzerriko hizkuntzak ikasten erabilitako ohiko bideek ez zuten baliorik eskaintzen. Planteamendu ausartagoa egin beharra zegoen, euskararen lehentasuna zalantzan jarri gabe ordea. Aukera bat izan zitekeen 11 urtetik aurrera atzerriko hizkuntzari, adibidez, denboraren herena eskaintzea, edota 8 urtetik aurrera denboraren laurdena, baina bide horiek euskararen lehentasuna kolokan jartzen zuten. Beste aukera bat lehenago hastea zen. Ikastoletako esperientzian oinarrituz, garbi zegoen jatorriz erdaldunak ziren haurrek euskalduntzeko biderik aproposena murgiltze goiztiarra zela. Zergatik ez erabili 4 urtetik aurrera batez ere Kanadan eta Estatu Batuetan emaitza onak eman zituen “Early Double Immersion Program” (Genesee, Lambert, Tucker, 1978) deiturikoaren antzeko eredua? Bide horretatik jo genuen garai haietan gure ingurunean urrats horiek egiten

hasiak ziren Traute Taeschner eta Josep María Artigal adituekin harremanetan jarritz.

Esan behar da 1991-92. ikasturtean guk indarrean jartzen hasitako planteamendu hau, Europako Batzordeak 1996. urtean plazaratu zuen “Hezkuntza eta gazteriari buruzko Liburu Zurian” berresten duela. Eleaniztasunari buruz hauxe esaten da:

“Europako Elkarteko zenbait hizkuntza ahalik eta hiritar gehienek ezagutzeak, Europako Elkarteko ekonomiaren, teknikaren, zientziaren eta kulturaren bilakaerari eta barne kohesioari indar handiz eragingo dio, betiere herrialde eta eskualde-kideen nortasun kulturala zainduz.

“Elkarteko hiru hizkuntzen ezaupide eragingarria lortu ahal izateko, atzerriko lehen hizkuntzaren irakaskuntza Haur Hezkuntzatik hastea komeni da, eta Lehen Hezkuntzan sistematizatzea beharrezkoa da. Atzerriko bigarren hizkuntza Bigarren Hezkuntzan hastea beharrezkoa da, eta, europar eskoletan egiten den bezala, atzerriko lehen hizkuntzan ikasgai bat irakastea komenigarri litzateke. Derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan, ikasle guztiek atzerriko bi hizkuntza europear hitz egin beharko lituzkete”

2.- Irakaskuntza eleaskotarikoaren planteamendu orokorra eta helburuak:

Eleaniztasunaren planteamenduak, esan bezala, ez du orain arteko elebitasunaren planteamendua ukatzen, osatzen baizik. Hau da, orain arteko elebitasunaren planteamendua, euskara hizkuntza nagusi delarik, gaztelania (hegoaldean) edo frantsesa (iparraldean), bi hizkuntzak ondo ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna lortzea izan bada, hemendik aurrera, elebitasunaren planteamenduari eutsiz, atzerriko hizkuntzen ezagutza eta erabilera izango da eleaniztasunaren planteamendua.


Zein aukeratu atzerriko lehen hizkuntzatzat, ingelesa ala frantsesa? Arrazoi sendoak egon daitezke lehen aukera frantsesaren zein ingelesaren alde egiteko. Horren aurrean, antolatzaileok hasieran bi aukera horiek eskaini genituen eta erabakia ikastolen esku utzi genuen. Ikastola guztiek ingelesa aukeratu zuten, eta ordutik aurrera ingelesa hartu dugu atzerriko lehen hizkuntzatzat.

Gaur egun proposatzen dugun irakaskuntza eleaskotarikoaren **planteamendu orokorra** hau da:

Maila		Adina	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa
H.H	1	3-4	X	x		
	2	4-5	X	x	X	
	3	5-6	X	x	X	
L.H.	1	6-7	X	x	X	
	2	7-8	X	x	X	
	3	8-9	X	X	X	
	4	9-10	X	X	X	
	5	10-11	X	X	X	
	6	11-12	X	X	X	
DBH	1	12-13	X	X	X	X
	2	13-14	X	X	X	X

	3	14-15	X	X	X	X
	4	15-16	X	X	X	X

Taula honetan ikus daitekeenez, lau hizkuntza irakasteko planteamendua egiten dugu. Euskararen eta gaztelaniaren kasuan ez dago aldaketarik, hau da, euskarak jarraitzen du irakaskuntzako hizkuntza nagusi izaten eta ikasleek, gaztelaniaz ordu gutxiago aritu arren, gaztelania euskara bezain ondo menderatzea lortu behar dute. Berrikuntza nagusia atzerriko lehen hizkuntzaren (ingelesaren) irakaskuntza goiztiarrean datza. Atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa) irakasten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran hasten da. Ikastola batzuetan alemana ikasteko aukera ere eskaintzen da.



Planteamendu orokor honekin lortu nahi diren **helburuak**:

Euskarari eta gaztelaniari dagokienez, legez ezarrita daudenak lortzea da helburua, hau da, “ikasle guztiei, baldintza beretan, derrigorrezko hezkuntzaren bukaerarako bi hizkuntza ofizialen ezaupide praktikoa bermatzea eta euskararen erabilera eta normalizazioa indartzea”

Atzerriko lehen hizkuntzari, hau da, *ingelesari* dagokionez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean (16 urte) lortuak izan beharko dituzte atzerriko hizkuntzei buruz Dekreituak etapa horretarako arautzen dituen ulermen, produkzio, irakurketa, idazketa, hizkuntz gogoeta, jarrera, etab.etarako hizkuntz gaitasunak. Eta gutxieneko eduki horiez gainera, ondoko hauek:

- Ikasleak gai izan bitez ahoz eta idatziz harremanak ingelesez izateko elkarren arteko komunikazio arrunt batean.
- Erabil bezate ingelesa transmisio-hizkuntza bezala alde aurretik seinalatutako eskola-gaiak jorrazteko.
- Gai izan bitez ingeles hizkuntzari buruzko analisi gramatikalak egiteko, halaber hizkuntza honek beste hizkuntzekiko dituen erlazio eta interferentziak aztertzeke.
- Esperientzia hori jarraitu ez dutenek bezain ongi mendera bitzate euskara eta gaztelania eta adimen garapen bera lor bezate.

Atzerriko bigarren hizkuntzari dagokionez, hau da, *frantsesari* eta kasu batzuetan *alemanari*, hizkuntza horren lehen hurbilketa egitea da helburua.

3.- “Eleanitz-ingelesa” proiektuaren bilakaera eta parte hartzeko aurrebaldintzak

Proiektua, esan bezala, 1991-92. ikasturtean 8 ikastolarekin hasi zen, eta geroztik urtero ikastola berriak joan dira sartzen. 2000-01. ikasturtean 58 ikastola, 779 gela eta 15.000 ikasle inguru daude proiektuan sarturik 4 urtetik hasi eta, oraingoz, 14-15 urte arte.

Hasierako urtea	Ikastola kopurua	Adin bakoitzerako gela kopurua									
		4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
1991-92	6	15	15	15	15	16	15	15	15	17	15
1992-93	6	14	14	14	14	13	13	13	14	12	7
1993-94	6	12	12	12	11	13	12	12	12	3	
1994-95	4	6	6	6	6	6	6	7	5		
1995-96	6	11	12	12	10	10	11	6	1		
1996-97	8	14	14	14	13	12	13	2			
1997-98	5	12	12	12	12	9					
1998-99	4	10	10	10	9						
1999-00	9	14	14	18	8						
2000-01	5	12	4								
Guztira	58	120	119	123	98	79	70	55	47	40	28

58 ikastola, 779 gela, +- 15.000 ikasle

Proiektuan sartzea borondatezkoa da, baina baldintza batzuk bete behar dira proiektuan parte hartu ahal izateko. Horretarako hitzarmen bat izenpetzen da, alde batetik, proiektuan sartu aurretik baldintzak ongi ezagutzeko eta, bestetik, konpromisoa bermatzeko. Eskatzen diren baldintzak hauek dira:

- a) D ereduan eskolatua izatea.
- b) Ingelesa ikasten 4 urterekin hasia eta 16 urte arte jarraitzea.
- c) Ziklo eta etapa desberdinetarako aurreikusita dauden saio eta ordu kopuruak betetzea.
- d) Proiekturako prestatzen ditugun ikasmaterialak erabiltzea.
- e) Proiektuan jarraitzeko baldintzak betetzen dituzten irakasleak hautatzea.
- f) Aurreikusita dauden prestakuntza saioetan irakasleek parte hartzea.
- g) Aurreikusita dauden ebaluazio saioetan parte hartzea.
- h) Proiektuak dituen kostuak ordaintzea.

Aste bakoitzerako aurreikusita dauden saio kopurua eta saio bakoitzaren iraupena hauxe da:

Aukera 1

Etapak	Adina	Saio kopurua astean	Saio bakoitzaren iraupena	Orduak asteen
Haur Hezkuntza	4-5	5	30'	2,30'
	5-6	5	30'	2,30'
Lehen Hezkuntza	6-7	4	45'	3 ordu
	7-8	4	45'	3 ordu
	8-9	4	45'	3 ordu
	9-10	4	45'	3 ordu
	10-11	3	60'	3 ordu
	11-12	3	60'	3 ordu
Derrigorezko Bigarren Hezkuntza	12-13	4	60'	4 ordu
	13-14	4	60'	4 ordu
	14-15	5	60'	5 ordu
	15-16	5	60'	5 ordu

Aukera 2

Etapak	Adina	Saio kopurua astean	Saio bakoitzaren iraupena	Orduak asteen
Haur Hezkuntza	4-5	4	30'	2 ordu
	5-6	4	30'	2 ordu
Lehen Hezkuntza	6-7	4	30'	2 ordu
	7-8	4	30'	2 ordu
	8-9	4	45'	3 ordu
	9-10	4	45'	3 ordu
	10-11	4	60'	4 ordu
	11-12	4	60'	4 ordu
Derrigorezko Bigarren Hezkuntza	12-13	4	60'	4 ordu
	13-14	4	60'	4 ordu
	14-15	5	60'	5 ordu
	15-16	5	60'	5 ordu


4.- Proiektuaren antolaketa eta kudeaketa

Proiektuaren sustatzailea Ikastolen Elkartea da. Ikastolen Elkartearen gobernu-organoa ikastoletako kide ordezkariak osatzen duten Talde Bateragilea da, eta horiei dagokie proiektuari buruzko azken erabakiak hartzea.

Eguneroko funtzionamenduaren gidaritzza Zuzendaritza taldeak du, zeina dagoen hiru pertsonaz, hau da, zuzendariaz eta bi arduradun nagusiz osatuta. Hauen arteko eginkizunen banaketa malgua da, baina zuzendariaren ardura nagusia proiektuaren diseinua aurkeztea, onarpena jasotzeko bideak prestatzea eta giza baliabide beharrezkoak, baliabide materialak eta funtzionalak aurkitzea eta horien kudeaketa egitea da. Arduradunen eginkizuna, batez ere, bi eremutan gauzatzen da: batetik, ikasmaterialen diseinua eta sorkuntza lanetan (egile eta egile-taldearen gidari gisa), eta bestetik, irakasleen prestakuntza eta jarraipenean. Zuzendaritza taldearen eginkizuna da

ikastoletako zuzendariak osatzen duten proiektuaren “Jarraipen eta Aholku taldearen” gidaritza ere.

Zuzendaritza taldeko pertsonaz gainera ikasmaterialen sorkuntzan, irakasleen prestakuntzan eta ikasleen ebaluazioan ari direnak aipatu behar dira.



5.- Ikasmaterialen elaborazioa

Ikasmaterialak dira proiektuaren muina eta bihotza. Materialetan islatzen dira hizkuntzen irakaskuntzari buruzko ikusmolde teoriko-metodologikoak eta helburuak lortzeko aukeratzen diren edukiak eta jarduerak. Materialetan oinarrituz egiten da gelako eguneroko lana, hots, bideratzen da irakaslearen praktika eta ikasleen ikaskuntza prozesua eta ebaluazioa. Materialen planteamendu teoriko-metodologikoan eta horien aplikazioan eta hobekuntzan oinarrituz egiten da irakasleen prestakuntza. Materialetan oinarrituz gorpuzten da talde lana eta proiektu bateratua.

Gurea bezalako proiektu bat bideragarri izateko bete behar den lehen baldintza nagusia ingelesa ikasteko material egokiak eskuratzea da, eta material egoki horiek ez badira aurkitzen, orduan, material propioak prestatzea ezinbestekoa da. Horixe izan da guk jarraitutako bidea.

Une honetan, 4 urtetik hasi eta 15 urte arteko ikasmaterialak eskuetan ditugu eta prestatzen ari gara DBHko 4. mailarako materiala. 1991n hasi ginenetik, 4-6 urteko ikasleentzat, Josep M^a Artigal-ek sortutako “*Ready for a Story*” ikasmaterialak eskuratu ditugu. 1992tik 1995era, Europako Elkarteko Lingua programaren babesean, 6-8 urteko ikasleentzat “*The Adventures of Hocus and Lotus*” ikasmaterialak sortu ditugu Erromako “La Sapienza” Unibertsitateko Traute Taeschner irakasleak koordinatuta, Birmingham-eko Unibertsitate, Amsterdam-eko Instituto eta EHUKo Hizpei-rekin batera. 1996tik aurrera Ikastolen Elkarteko Itziar Elorza, Diana Lindsay eta Xabier Garagorrik hartu dute beren gain lanaren koordinazioa eta Sokrates-Lingua D programaren babesean eta lehengo bazkide berekin batera, 8-10 urteko ikasleentzat “*Story Projects*” materialak, 10-12 urtekoentzat “*The Explorers*” materialak eta 12-14 urtekoentzat “*Subject Projects*” materialak plazaratu ditugu. Une honetan, 14-16

urtekoentzat “*Social Sciences*” ikasgaia, ingelesez ikasteko materialak bukatzen ari gara eta Batxilergorako material egokiaren diseinua egiten.

Adina	Materialak
4-6	Ready for a Story
6-8	The Adventures of Hocus and Lotus
8-10	Story Projects
10-12	The Explorers
12-14	Subject Projects
14-16	Gizarte Arloa ingelesez (SSLIC)
16-18	Europako kultura?

Ikasmaterial hauek zabaltzeko ez ditugu merkatuaren betiko bideak erabiltzen, horien erosketa, irakasleen prestakuntzarekin batera, pakete batean eskaintzen baita. Neurri hau beharrezkoa dela iruditzen zaigu, zeren 4tik 8ra arteko materialen planteamendu metodologikoa, dramatizazioaren eta espazioaren banaketak garrantzi handia hartzen duten neurrian, aldaketa handiak eskatzen baiditu. Eta 8 urtez gorakoentzako materialak, planteamendu metodologikoaren berezitasunaz gain, CD-Rom formatuan eskaintzen dira. Material hauek, irakasleen prestakuntzarik gabe, ez zaizkigu erabilgarri direnik iruditzen, horregatik merkatuko ohiko bideak erabiltzea alferrikako salmenta dela uste dugu.

6.- Proiektuaren europar dimentsioa:

Proiektuaren hasieratik izan ditugu harremanak europar erakundeekin. Proiektua indarrean jarri aurretik, Rachel Cohen-ek zuzentzen zuen IEDPE Institutoaren bidez (1989) eta bertan parte hartzen zuten Renzo Titone, Miguel Sigüan eta Traute Taeschner-en bidez ezagutu genituen urte haietan Europan atzerriko hizkuntzak irakasteko eskolaurrean egiten ari ziren esperientziak. Baina informazioaren trukaketan oinarritzen ziren hasierako harreman horietatik lankidetzak eskatzen duen harreman sakonagora pasa ginen Europako programen babesean (Sócrates, Lingua A eta D). Hiru etapa bereiz daitezke:

a) « *The Adventures of Hocus and Lotus* » (1992-95) :

Eta honetan, “The Adventures of Hocus and Lotus” ikasmaterialen sorkuntzaren inguruan, aukera izan genuen Erromako “La Sapienza” Unibertsitatearen gidaritzapean, Birmingham-eko, Amsterdam-eko eta UPV/EHUKo Unibertsitateetako adituekin batera lana egiteko eta herrialde horietako irakasleekin lankidetzan aritzeko.

b) “*Story Projects*” eta “*The Explorers*” (1995-98):

Eta honetan, Ikastolen Elkartearen gidaritzapean, aipatu ditugun kideekin eta Cervantes Institutoarekin batera, guk ingelesa irakasteko sortutako materialak, gure kideek italiera, nederlandera eta gaztelania irakasteko itzuli-egokitu zituzten.

c) *“Subject Projects” (1998-2001):*

Eta honetan, Ikastolen Elkartearen gidaritzapean jarraituz, “Subject Projects” ikasmaterialak ingelesez sortzen ditugu UPV/EHUekin batera eta Herbehereetako Fontys Unibertsitateak, Siziliako A. Paino eskolak, Granadako Unibertsitateak eta Irlandako ITE Institutoak, nederlanderara, italierara, gaztelaniara eta itzuli-egokitu dituzte. Aipatu bost hizkuntza horiek irakasteko materialak, Europako 10 herrialdetan eta 21 eskolatan esperimentatu eta ebaluatu dira.

7.- Irakasleen prestakuntza eta jarraipena

Ikasmaterialgintza hain garrantzizkoa izanik ere, hanka-motz geratzen da irakasleen prestakuntzarekin batera ez bada horien erabilera planteatzen. Ikasmaterialak tresnak dira, irakasleen eskuetan jartzen diren tresnak. Tresna horiek kalitate handikoak izan daitezke, baina ez dute ezertarako balio horiek erabili behar dituzten irakasleak ez badira trebeak.

Bi prestakuntza mota eskaintzen ditugu: oinarrizko prestakuntza orokorra eta espezifikoa. Oinarrizko prestakuntza orokorraren helburua, batetik, irakasleen ingeles maila hobetzea da eta, bestetik, hizkuntzak irakasteko irakasleen prestakuntza teoriko eta didaktikoa hobetzea. Helburu horiek lortzeko, urrutitik egiten den irakaskuntzaren teknologia erabiliz, bi ikastaldi trinko eskaintzen ditugu, bakoitza 250 ordukoa. Prestakuntza mota honi, edozein irakaskuntza egoeratarako egokia izan daitekeenez eta bertan ingelesa irakasten duten era guztietako irakasleek parte har dezaketenez, orokorra deitzen diogu.

Prestakuntza espezifikoa “**Eleanitz**” proiektuan parte hartzen duten irakasleentzat da. Honen helburua adin eta maila bakoitzerako prestatu ditugun ikasmaterialak egoki erabiltzeko prestakuntza eskaintzea da. Prestakuntza mota hau hiru zutaberen inguruan antolatzen da:

a) *Informazio teorikoa eta didaktikoa:*

Honen helburua da ikasmaterialak sortzeko oinarri bezala erabili diren abiapuntu teorikoen informazioa eskaintzea eta material kurrikularrak egokiro erabiltzen jakiteko behar diren teknika edo prozedura didaktiko eta metodologikoak (drama, espazioaren antolamendua, baliabide informatikoen erabilera, etab.) irakastea. Prestalan hau ikasturtearen hasieran egiten da funtsean.

b) *Praktikari buruzko gogoeta:*

Irakasleen esku jartzen diren material kurrikularretatik abiatuz egiten da. Material hauen aplikazioa ez da pasiboki eta akritikoki egiten, bakoitzaren praktika gainerakoen praktikarekin kontrastatuz baizik. Halaber, materialen ebaluazioa kontrastatu eta hobetzeko proposamenak egiteko balio izaten dute jardunaldi horiek. Prestalan hau ikasturtean zehar egiten da, hilean behin.

c) *Lanaren segimendua ikasgeletan:*

Proiektuaren koordinatzaile pedagogikoak, proiektuan inplikaturik dauden irakasleen ikasgeletara joaten dira aldizka-aldizka, praktika konkretuak ikusi eta aholku emateko asmoz. Behar izanez gero, koordinatzaileak bertako irakaslearen lekua hartzen du, horrela eredu izateko. Jarraipen lan honetan saio batzuk bideoan grabatzen dira, gero taldean aztertu eta ebaluatzeko.

Oinarrizko prestakuntza orokorra emateko, ingelesa irakasteko eta hizkuntzak irakasteko prestaturik dagoen edozein irakasle gai bada ere, prestakuntza espezifikoak emateko beharrezkoa da ikasmaterialen egileek parte hartzea.

8.- Proiektuaren ebaluazioa

Ebaluazioaren objektibotasuna gordetzeko, kanpo-ebaluazio bat egiten da. Hau da, talde ebaluatzailea osatzen duten pertsonak, proiektuaren barruan koordinazio pedagogiko edo antolamenduko eginkizunak dituztenez bestelakoak dira. Proiektuaren kanpo-ebaluazioa Euskal Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Pedagogi Institutuak (HIZPEIk) egiten du.

Eta proiektua ebaluatzeko hipotesiak, berriz, hauexek dira: ingelesean oinarrizko komunikazio gaitasuna garatuko dela, ez diola euskarari kalterik egingo, ez jarreran edo identifikazio-graduan, eta ezta gaitasun-mailan ere, eta berebat atzerriko hizkuntza bat adin goiztiarrean sartzek ez diola kalterik egingo gaztelaniazko gaitasunari eta ezta gaitasun intelektualen garapenari ere.

Hipotesi horiek egiaztatzeko, alde batetik, 76 ikasleko lagin bat hautatu da esperientziarekin 1991-92an hasi ziren 8 ikastetxeren artetik (Taldea esperimentalak), eta bestetik, talde esperimentalaren antzeko ezaugarriak dituzten baina proiektuan parte hartzen ez duten 7 ikastetxetako 90 ikasleko beste lagin bat (Kontrol-taldea).

Eta emaitzei dagokienez, esan dezakegu hamar urteko bilakaeran oro har betetzen ari direla ingelesa adin goiztiarrean sartzek euskara eta gaztelaniazko gaitasunei, hala nola gaitasun intelektualei, kalterik egiten ez zielakoari buruz planteatutako hipotesiak. Ingeleseko emaitzen kasuan, talde esperimentaleko ikasleen emaitzak kontrol taldeko ikasleenak (8 urterekin ingelesa hasitakoak) baino 25% inguru hobeak dira. Halere, jakina, behin betiko ebaluazioa ezingo da egin proiektua bukatzen den arte, hots, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 2002-03 urtean bukatzen duten arte.